## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 7013

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 15ekoa, Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziako zuzendariarena, abenduaren 10ean Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziako Administrazio Kontseiluak onarturiko Eukal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen Osagarri Gehigarriak Ebaluatzeko eta Esleitzeko Protokoloa jakinarazten duena.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen osagarri gehigarriak ebaluatzeko eta esleitzeko Protokoloa

1.– Lege esparrua.

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen II. tituluaren 2. kapituluaren bosgarren ataleko 34. artikuluan, ordainsari gehigarriei buruzkoa, Gobernuak irakasle eta ikertzaileentzat (funtzionario eta kontratatuak), ordainsari gehigarriak ezarri ahal izango dituela xedatzen du, irakaskuntzari, ikerketari eta kudeaketari dagokienez egoki irizten dien irizpideen arabera, eta hizkuntzari dagozkion merituak ere kontuan hartuko direla. Era berean, Eusko Jaurlaritzari dagokio, unibertsitate-arloko departamentu eskudunak proposatuta, ordainsari horien mugak ezartzea eragin-kortasun- eta efikazia-irizpideen arabera, eta Gizarte Kontseiluari dagokio, Unibertsitateko gobernu-kontseiluak proposatuta, ordainsari horiek modu berezi eta indibidualean esleitzea erabakitzea, Uniqual - Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak merituak balioetsi ondoren.

2004ko abenduan Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak akordio bat sinatu zuten finantzaketa-eredu egonkorra garatzeko eta ordainsari gehigarrien eredu bat ezartzeko. Horrela, ordura arte ezagutzen ez zen bide berri bat urratu zen UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen baldintzak hobetzeko.

Azkenik, urriaren 17ko 209/2006 Dekretua UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen jarduera eta lanbide-garapena sustatzeko eta aitzatesteko helburuarekin sortu zen, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legean adiera-

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 7013

RESOLUCIÓN de 15 de diciembre de 2008, de la Directora de Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, por la que se da publicidad al Protocolo para la Evaluación y Asignación de Complementos del Personal Docente e Investigador de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea aprobado por el Consejo de Administración de Uniqual Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiazatatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, el 10 de diciembre de 2008.

Protocolo para la evaluación y asignación de complementos adicionales del personal docente e investigador de la universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

1.– Marco Legal.

La Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, en el Título II, Capítulo 2, Sección quinta, artículo 34 sobre Retribuciones adicionales establece que el Gobierno podrá establecer para el personal docente e investigador, funcionario y contratado, complementos retributivos, de acuerdo con los criterios que considere oportunos en torno a la docencia, la investigación y la gestión, entre los que se incluirán los méritos lingüísticos. Asimismo establece que corresponde al Gobierno Vasco, a propuesta del departamento competente en materia de Universidades, establecer los límites de dichas retribuciones de acuerdo con los criterios de eficacia y eficiencia, y al Consejo Social, a propuesta del consejo de gobierno de la Universidad, acordar la asignación singular e individual de los mismos previa valoración de los méritos por Uniqual - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia-Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

En diciembre de 2004 se firmó un Acuerdo entre el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco y la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea para el desarrollo de un modelo estable de financiación y la implantación de un modelo de retribuciones adicionales, abriéndose de este modo una vía, inexistente hasta el momento, de mejora de las condiciones del personal docente e investigador de la UPV/EHU.

Por último, el Decreto 209/2006, de 17 de octubre, nace con la intención de fomentar y reconocer la actividad y el desarrollo profesional del personal docente e investigador de la UPV/EHU, aplicando los conceptos

zitako eraginkortasun, efikazia eta kalitate kontzeptuak ezarriz, eta osagarri berezi horien arautzea Jaurlaritzak planifikazio-tresna egokien bidez, eta batez ere Unibertsitate Planaren bidez ezarritako unibertsitate-politikaren helburuetara egokituz. Esparru horretan, ordainsari osagarri gehigarriak UPV/EHUko irakaskuntza-jardueren, ikerketa-jardueren eta irakasle eta ikertzaileen kudeaketaren kalitatea hobetzea suspertzeko eta sustatzeko tresna dira. Hala ere, horien soldata-baldintzak onartzeko eta hobetzeko selekzio-mekanismo indibidualizatua den arren, ez dute inola ere Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen 33. artikuluan xedatutako unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-erregimen orokorrean barne hartutako ordainsari osagarria osatzen; hori dela-eta, erregimen hori ez zaie aplikatuko. Ordainsari horien bidez lortu nahi dena irakaskuntzari, ikerketari eta kudeaketari loturiko betebeharrak saritzea besterik ez da, betebehar horiek gutxieneko kalitate-estandarren eta oinarrizko betekizunak betetzeari buruzko gutxieneko estandarren gainetik egiten direnean. Osagarri horiek izaera berezia dute arrazoi hauengatik: aldakorrak dira eta ez-finkagarriak, eta gainera, oinarri dituzten merituen aldizkako ebaluazioari loturik daude.

EUSLaren 80.3 artikuluaren i) letran eta 209/2006 Dekretuaren 8.1 artikuluan (Uniqualen estatutuak) aurreikusitakoari jarraiki, Agentziak, bere funtzioen artean, espresuki esleituta du irakaskuntzako, ikerketako eta kudeaketako merituen ebaluazioa [5.1.i) artikulua], lege horren 34. artikuluan UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileentzat aurreikusitako ordainsari osagarriak esleitzearren.

Eskumen hori betez, eta EUSLaren 83.c) artikuluak xedatutakoari jarraiki, Uniqualen Administrazio Kontseiluak, 2008ko abenduaren 10eko bilkuran, prozedurari eta ebaluazio-irizpideei buruzko Protokoloa onartu du. Protokolo berri honetan idazketa-aldaketa txikiak sartu dira atal batzuetan, ebaluazio-prozesu guztiari segurtasun juridiko handiagoa emateko helburuarekin. Horrela, alde batetik, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren irailaren 26ko 594/2008 Epaiak baliogabetutako kontzeptuak ezabatu dira; eta bestetik, enuntziatu argiagoak eta zehatzagoak erabili dira, 2006ko Protokoloa aplikatzean sortutako arazoak saihestearren. Protokolo horren edukiak ez du aldaketa nabarmenik jasan.

2.– Sarrera.

Uniqualeko irakasleak ebaluatzeko programaren arabera, irakaskuntza-, ikerketa- eta kudeaketa-jarduerak ebaluatzea beharrezkoa da UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileei osagarri indibidualak ordaintzeko. Ildo

de eficacia, eficiencia y calidad marcados en la Ley del Sistema Universitario Vasco y acomodar la regulación de estos complementos singulares a los objetivos de política universitaria que sean establecidos por el Gobierno a través de los instrumentos de planificación oportunos y, especialmente, del Plan Universitario. En este marco, los complementos retributivos adicionales constituyen un instrumento destinado a incentivar y estimular el incremento cualitativo de la actividad docente, investigadora y de gestión del personal docente e investigador de la UPV/EHU, pero, aún cuando pueda suponer un mecanismo selectivo e individualizado para el reconocimiento y mejora de sus condiciones salariales, en ningún caso constituyen una retribución complementaria inserta en el régimen general de retribuciones del personal docente e investigador universitario contemplado en el artículo 33 de la Ley del Sistema Universitario Vasco, razón por la cual no les es de aplicación dicho régimen, sino que, por el contrario, únicamente pretenden recompensar el cumplimiento de las obligaciones docentes, investigadoras y de gestión cuando se realiza por encima de unos determinados estándares mínimos de calidad y del cumplimiento de las obligaciones básicas. La naturaleza específica de estos complementos, por tanto, se manifiesta no sólo en el carácter variable y no consolidable de los mismos sino, principalmente, en estar ligados a la evaluación periódica de los méritos en que se fundamentan.

De acuerdo con lo previsto en la letra i) del artículo 80.3 de la LSUV, así como en el artículo 8.1 del Decreto 209/2006, los Estatutos de Uniqual, la Agencia tiene expresamente atribuida, entre sus funciones, la de la evaluación de los méritos docentes, de investigación y de gestión [artículo 5.1.i)], a los efectos de la asignación de los complementos retributivos previstos para el personal docente e investigador de la UPV/EHU en el referido artículo 34 de dicha Ley.

En ejercicio de esta competencia, y de conformidad con lo dispuesto por el artículo 83.c) LSUV, el Consejo de Administración de Uniqual ha aprobado, en su reunión de 10 de diciembre de 2008, el Protocolo sobre el procedimiento y los criterios de evaluación. En este nuevo Protocolo se han introducido ligeros cambios de redacción en algunos apartados con el objetivo de proporcionar una mayor seguridad jurídica a todo el proceso de evaluación. Así, por un lado, se han suprimido los conceptos anulados por la Sentencia n.º 594/2008, de 26 de septiembre de 2008, de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y, por otro, se han utilizado enunciados más claros y precisos a fin de evitar los problemas suscitados en la aplicación del Protocolo de 2006 cuyo contenido se mantiene sin alteraciones reseñables.

2.– Introducción.

El Programa de Evaluación de Complementos del Profesorado de Uniqual, se refiere a la evaluación necesaria de la actividad docente, investigadora y de gestión para la retribución de complementos individuales

horretan, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak proposatuta, irakasle eta ikertzaileei ordainsari osagarriak modu berezi eta indibidualean esleitzea erabaki du, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuan aurreikusitako modalitateen barruan eta bertan ezarritako mugekin.

Dekretu horretako 1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, osagarriak esleitzeko, osagarri horien oinarri diren merituak aurrez positiboki balioetsi eta ebaluatzea eskatuko du Uniqualek.

Garatu beharreko ebaluazio-prozesua Uniqualen Kode Etikoan jasotako printzipio hauetan oinarrituko da beti:

– Independentzia. Eskaeren balioespena batzorde teknikoek egingo dute. Batzorde horiek izen handiko adituek osatuko dituzte, eta horiek aplikatuko dituzte 209/2006 Dekretuaren eranskinean jasotako irizpide orokorrak, eskatzailearen ekarpenen kalitatearen arabera. Aditu horiek hirugarren alderdiekiko askatasunez jardungo dute eta, hala badagokio, euren ekintzen ondorioen erantzule izango dira.

– Gardentasuna. Eskatzaileek prozesuan zehar gardentasuna jasoko dutela ziurtatuko da, prozesuaren konfidentzialtasuna arriskuan jarri gabe. Ildo horretan hartutako neurriak hauek dira:

• Beharrezkotzat jotzen den informazio guztia jendaurrean jartzea, eskaerak egiteko, agiriak jasotzeko, merituak ebaluatzeko, txostenak egiteko eta erreklamazioei erantzuteko prozesuak aurrera eramateko.

• Konfidentzial gisa sailkatutako agiri eta/edo informazio guztien konfidentzialtasunari eustea, eta arduraz jokatzea ebaluatzerakoan erabili ahal edo behar den gainerako informazioarekin.

• Eraginkortasuna. Prozesu bakoitzerako ahalik eta ebaluazio-prozesu sinpleena bilatuko da, ebaluazioari bizkor erantzuteko.

• Ekitatea. Eskaera guztietarako tratu-berdintasuna ziurtatu behar da. Arlo bereko eskaerak banaka ebaluatuko dituzte batzorde bakoitzeko kideek, eta ondoren, baterako bilera batean, eskaera bakoitzaren ebaluazioaren emaitzak bateratu eta adostuko dituzte.

3.– Ebaluazio Organoak.

Uniqualek bere ebaluazio-organoen bidez ebaluatuko ditu jasotako eskaerak. Ebaluazio-organoetako kideak guztiz inpartzialak izango dira euren jardunean, gerta litezkeen interes-gatazken berri emango dute, eta hala badagokio, ez dute prozesu osoan edo zati batean parte hartuko.

Ebaluazio-prozesuan eskuratutako informazio guztia konfidentziala da.

al personal docente e investigador de la UPV/EHU. En este sentido, el Consejo Social de la UPV/EHU, a propuesta del Consejo de Gobierno de la Universidad, acuerda la asignación singular e individual de complementos retributivos al personal docente e investigador dentro de las modalidades y con las limitaciones previstas en el Decreto 209/2006, de 17 de octubre.

Tal y como está previsto en dicho Decreto, artículo 1, la asignación de los complementos exigirá la previa valoración y evaluación positiva de los méritos en que se sustentan por Uniqual.

El proceso de evaluación a desarrollar deberá regirse siempre por los siguientes principios recogidos en el Código Ético de Uniqual:

– Independencia. La valoración de las solicitudes se realizará por comités técnicos, compuestos por expertos/as de reconocido prestigio que aplicarán los criterios generales recogidos en el anexo del Decreto 209/2006, de acuerdo a la calidad de las aportaciones del/de la solicitante. Estos/as expertos/as actuarán con autonomía respecto a terceras partes y responderán, en su caso, de los resultados de sus actos.

– Transparencia. Se debe asegurar que los/las solicitantes perciban transparencia en el proceso sin comprometer la confidencialidad del mismo. Las medidas adoptadas en este sentido son:

• Hacer pública cuanta información se considere necesaria para llevar a cabo los procesos de solicitud, recepción de documentos, evaluación de méritos, emisión de informes y atención a reclamaciones.

• Mantener la confidencialidad de todos los documentos y/o informaciones clasificados como confidenciales y tratar con reserva el resto de la información a la que se pueda o deba acceder en el ejercicio de la evaluación.

• Eficiencia. Para cada uno de los procesos, se buscará el procedimiento de evaluación más simple posible para dar respuesta rápida a la evaluación.

• Equidad. Se debe asegurar la igualdad de trato de todas las solicitudes. Las solicitudes de un mismo campo serán evaluadas de forma individual por los miembros de cada Comité, que en una reunión posterior conjunta pondrán en común y consensuarán el resultado de la evaluación para cada solicitud.

3.– Órganos de Evaluación.

Uniqual evaluará las solicitudes recibidas a través de sus órganos de evaluación. Los miembros de los órganos de evaluación deberán mantener una imparcialidad absoluta en su actuación, debiendo declarar los posibles conflictos de intereses que puedan presentarse y, en su caso, absteniéndose de participar en todo o en parte del proceso.

Toda la información a la que se tenga acceso en el proceso de evaluación es de carácter confidencial.

Ebaluazio Batzordeak ebaluazio-prozesuaren koordinazio-organoak dira. Horien lana da prozedura guztia planifikatu, kontrolatu eta aztertzea, eta egindako irizpen teknikoak ikusita, behin betiko txosten indibidualak egitea.

3.1.– Osaera:

Ebaluazio Batzorde bakoitzak zazpi kide izango ditu gutxienez, eta kide horiek unibertsitateko irakasleen kidegoetako doktoreen edo irakasle kontratatu iraunkorren artean hautatuko dira. Beren irakaskuntza-jardueraren aldeko ebaluazioak izan beharko dituzte (dedikazioko 12 urteri dagokiona), eta gutxienez ikerketa-jarduerari eskainitako bi aldiren (seiurteko) aintzatespena izango dute. Publikoak ez diren Unibertsitateetako irakasleen kasuan, kanpotik egiaztatutako meritu baliokideak beharko dira. Uniqualen zuzendariak izendatuko ditu Ebaluazio Batzordeko presidente eta idazkari izango diren kideak, eta horiek karguaren berezko funtzioak beteko dituzte kide anitzeko organo batean. Ebaluazio Batzordeko kideak independenteak, inpartzialak eta gardenak izango dira euren jardunean, eta funtzio hori betetzen duten bitartean ez dute Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetako ordezkaritza-kargurik beteko.

3.2.– Izendapena:

Batzordeko kideak Uniqualen zuzendariak izendatuko ditu, Adituen Batzordeak proposatuta eta Administrazio Kontseiluak aurrez onartuta. Batzordearen osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Uniqualen web-orrian argitaratuko da.

3.3.– Ebaluazio Batzordeen kopurua:

Jakintza-arlo guztiak biltzen dituzten bost arlo zientifiko handi hauen araberako Ebaluazio Batzordeak ezarriko dira:

1) Zientzia Esperimentalen Batzordea.

2) Medikuntza eta Osasun Zientzien Batzordea.

3) Irakaskuntza Teknikoen Batzordea.

4) Gizarte Zientzia, Zientzia Juridiko eta Ekonomia Zientzien Batzordea.

5) Giza Zientzien Batzordea.

4.– Prozesuaren deskribapena.

Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak proposatuta, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak, urtero, merituen ebaluazioa eta ordainsari gehigarriak esleitzeko epeak, modua eta baldintza orokorrak finkatuko dituen deialdia onartu eta argitaratuko du.

Urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitako ordainsari gehigarrien ebaluaziorako aukera izateko, lehenengo ebaluazioaren kasuan izan ezik, ezinbesteko baldintza izango da UPV/EHUrekin lan-,

Los Comités de Evaluación son el órgano coordinador del proceso evaluador, que realizarán las labores de planificación, control y análisis de todo el procedimiento y emitirán los informes individuales definitivos, a la vista de los juicios técnicos emitidos.

3.1.– Composición:

Cada Comité de Evaluación estará formado, al menos, por siete miembros, y su selección se llevará a cabo entre doctores/as de los cuerpos docentes universitarios o profesores/as contratados/as permanentes que deberán poseer evaluaciones favorables de su actividad docente (correspondiente a 12 años de dedicación) y el reconocimiento de un mínimo de dos periodos de actividad investigadora (sexenios). En el caso de profesores/as de Universidades no públicas se requerirán meritos equivalentes acreditados externamente. La Directora de Uniqual designará a los miembros del Comité de Evaluación que actuarán como Presidente/a y como Secretario/a, los cuales realizarán respectivamente las funciones propias del desempeño del cargo en un órgano colegiado. Los miembros del Comité de Evaluación deberán reunir los requisitos de independencia, imparcialidad y transparencia en su actuación, debiendo evitarse el desarrollo simultáneo de esta función con cargos de representación en las Universidades de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

3.2.– Nombramiento:

Los miembros del Comité serán nombrados por la Directora de Uniqual, a propuesta de la Comisión de Expertos/as y con la previa aprobación del Consejo de Administración. La composición del Comité será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco y en la página web de Uniqual.

3.3.– Número de Comités de Evaluación:

Se establecen Comités de Evaluación en función de los cinco grandes campos científicos, en los que se recogen todas las áreas de conocimiento:

1) Comité de Ciencias Experimentales.

2) Comité de Ciencias Médicas y de la Salud.

3) Comité de Enseñanzas Técnicas.

4) Comité de Ciencias Sociales, Jurídicas y Económicas.

5) Comité de Humanidades.

4.– Descripción del proceso.

A propuesta del Consejo de Gobierno de la Universidad, el Consejo Social de la UPV/EHU, con carácter anual, aprobará y publicará la convocatoria en la que se fijen los plazos, forma y requisitos generales para solicitar la evaluación de los méritos y la asignación de los complementos retributivos adicionales.

Para optar a la evaluación de los complementos retributivos previstos en el Decreto 209/2006, de 17 de octubre, tal y como se señala en el artículo 2, salvo en el caso de la primera evaluación, será requisito impres-

estatutu- edo administrazio-lotura izatea ebaluatu nahi den epe osoan zehar. Horretarako, ez dira kontuan izango zerbitzu-eginkizunak, zerbitzu bereziak eta antzeko egoerak direla-eta izandako etenuneak.

Kontuan izan behar da pertsona bakoitzak eskatzen duen lehenengo ebaluazioan eskatzaileak bere bizitza akademiko guztiko merituak, 2008ko abenduaren 31 arte, arrazoitu beharko dituela, UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileen ordainsarien osagarri gehigarriei buruzko urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren bigarren xedapen iragankorreko lehenengoaren azken intzisoan ezarritakoari kalterik egin gabe. Ondorengo ebaluazioak aurreko ebaluazioaren eta deialdiaren arteko denbora-tartean garatutako jarduerari buruzkoak izango dira.

Ebaluazio positiboak bost urteko baliozkotasuna izango du. Eskatzailea, beraz, ezingo da deialdi batera aurkeztu aurreko ebaluazioaren baliozkotasuna agortzen den arte eta, ebaluazio berririk eskatzen ez badu, horri loturiko eskubide ekonomikoak galduko ditu.

Salbuespen gisa, Unibertsitateari eskainitako lanbide-jarduna aintzatestera bideratutako osagarriak (C tartea) esleitzeko pertsona bakoitzaren lehenengo ebaluazioak baldintza hauek baino ez ditu kontuan izango:

a) Bere irakaskuntza-jardueraren aurkako txostenik ez egotea (ez-betetze formalik, edo tutoretzei, irakaskuntzari, akten epeei eta abarrei buruzkorik ez egotea).

b) Irakaskuntzari buruzko inkestak sistematikoki betetzea, eta horietan errepikatutako balioespen negatiborik ez izatea.

Eskaerak jasotzea

Eskaerak norberak aurkeztuko ditu eta UPV/EHUko Gobernu Kontseilura zuzenduko dira. Eskaeran adierazi beharko da zer maila eta tartetarako eskatzen den ebaluazioa. Eskaera deialdian aurreikusitako lekuetan aurkeztuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Aurrekoa horrela izanik ere, ebaluazio-eskaera interesdunaren curriculumarekin batera sortu ahal izango da, Uniqualen web-orrian eskuragarri dagoen informatika-aplikazio baten bidez. Betetako eskaera deialdiari erantsitako eredua beteta ere entrega daiteke, baina espedientea izapidetzea motelagoa izaten da horrelakoetan.

Eskatzaileek ebaluazioa behar bezala egiteko egokien iruditzen zaien moduan justifikatuko dituzte euren merituak. Uniqualek egoki irizten dionean agiri original osagarriak eskuratu ahal izango ditu, aurkeztutakoeta-

cindible haber mantenido vinculación laboral, estatutaria o administrativa con la UPV/EHU durante todo el período objeto de evaluación. A estos efectos, no se tomarán en consideración las interrupciones debidas a comisiones de servicios, servicios especiales y situaciones análogas.

Hay que tener en cuenta que en la primera evaluación que cada persona solicite, el/la solicitante deberá alegar los méritos de toda su vida académica, hasta el 31 de diciembre de 2008, sin perjuicio de lo establecido en la Disposición Transitoria Segunda uno, último inciso, del Decreto 209/2006, de 17 de octubre, sobre complementos retributivos adicionales del Personal Docente e Investigador de la UPV/EHU. Las siguientes evaluaciones se realizarán sobre la actividad desarrollada en el período de tiempo comprendido entre la evaluación anterior y la fecha en la que se señale en la convocatoria.

La evaluación positiva tendrá una validez de cinco años. Por lo tanto, el/la solicitante, no podrá volver a presentarse a una convocatoria hasta que se haya agotado el periodo de validez de la evaluación anterior y, en caso de no solicitar una nueva evaluación, perderá los derechos económicos ligados a la misma.

Con carácter excepcional, la primera evaluación de cada persona para la asignación de complementos destinados al reconocimiento de la dedicación profesional a la Universidad (tramo C) tendrá en cuenta única y exclusivamente las siguientes condiciones:

a) Ausencia de informe negativo alguno sobre su docencia (inexistencia de incumplimientos formales, de tutorías, de docencia, plazos de actas, etc.).

b) Cumplimiento sistemático de las encuestas de docencia y ausencia de valoración negativa reiterada en las mismas.

Recepción de Solicitudes:

Las solicitudes, que siempre se formularán a título individual, se dirigirán al Consejo de Gobierno de la UPV/EHU. En la solicitud se deberá indicar para cuál o cuáles de los niveles y tramos se solicita la evaluación. La solicitud se presentará en los lugares previstos en la convocatoria, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

No obstante lo anterior, la solicitud de evaluación también podrá generarse junto con el curriculo del interesado/a mediante una aplicación informática disponible en la página web de Uniqual. La solicitud formalizada puede también entregarse completando el modelo que se adjunta a la convocatoria, si bien la tramitación del expediente puede ser más lenta en tales casos.

Los/las solicitantes justificarán sus méritos de la forma que consideren más adecuada para su correcta evaluación. Uniqual podrá recabar documentación original adicional cuando lo considere oportuno, si de la aporta-

tik ezin badira adierazitako merituak behar bezala ondorioztatu. UPV/EHUk ebaluazio-prozesua erraztuko du beti, Uniqualek eskatzen dizkion eta unibertsitateko irakasleek adierazitako merituak egiaztatzen dituzten ziurtagiriak eta agiriak aurkeztuz.

Eskaera bakoitzean, Uniqualen langileek hau egiaztatuko dute:

1) Aurrez ezarritako legezko baldintzak betetzen direla. Baldintza horiek ebaluazioa eskatzeko epea amaitu baino lehen betetakoak izango dira beti.

2) Agiriek deialdian ezarritako baldintza formalak betetzen dituztela.

Uniqualen zuzendariaren ebazpen bidez, epez kanpo hartutako eskaerak artxibatu egin direla jakinaraziko zaie interesdunei.

Epearen barruan aurkeztutako eskaerek deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, eskatutako datuak jasotzen ez badituzte, beharrezko agiriak eransten ez badira, edo horiek akats formalak badituzte, interesdunari hamar egun baliodunek o epea emango zaio, jakinarazten zaion biharamunetik kontatzen hasita, hutsegitea zuzentzeko edo eskatzen zaizkion agiriak aurkezteko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 71.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Eskatzaileak adierazitako epearen barnean hutsegitea zuzentzen ez badu, edo agiriak aurkezten ez baditu, bere eskaerari uko egin diola ulertuko da, 30/1992 Legearen 42. artikuluari jarraiki, Uniqualen zuzendaritzak aurrez ebazpena emanda.

Ebaluazioa:

Urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren 8. artikuluari jarraiki, Uniqualek Protokolo honen arabera egingo du eskaeren ebaluazioa.

Ebaluazio Batzordeak, prozesuaren koordinazio-organoa den aldetik, deialdi bakoitzaren hasieran ebaluazio-prozesuaren plangintza orokorra egingo du. Plangintza horretan, Batzordeek ebaluazio-lanak egiteko dituzten epeak adieraziko dira, interesdunei Uniqualen ebazpena deialdian adierazitako gehienezko epean iritsiko zaiela bermatzearren. Oro har, jakintza-arloaren eta eskatzaileak adierazitako arloaren arabera esleituko zaizkio aurkeztutako eskaerak dagozkion Ebaluazio Batzordeari. Hala ere, eskaera eskatzaileak adierazitako arloa ez den bati atxiki ahal izango zaio, eta hortaz beste batzorde bati, adierazitako merituak arlo zientifiko horri hobeto egokitzen zaizkiola uste bada, eta beti ere Agentziak inguruabar hori behar bezala justifikatzen badu.

da no se dedujese adecuadamente los méritos alegados. En todo momento, la UPV/EHU facilitará el proceso de evaluación aportando las certificaciones y documentos que le sean solicitados por Uniqual y que acrediten méritos alegados por su profesorado.

Para cada solicitud, el personal de Uniqual verificará:

1) El cumplimiento de los requisitos previos legalmente establecidos. La concurrencia de dichos requisitos deberá estar referida siempre a una fecha anterior a la de expiración del plazo fijado para solicitar la evaluación.

2) Que la documentación cumple los requisitos formales establecidos en la convocatoria.

Mediante Resolución de la Directora de Uniqual se notificará a los/as interesados/as el archivo de las solicitudes recibidas fuera de plazo.

Cuando las solicitudes presentadas en plazo no reúnan los requisitos establecidos en la convocatoria, no se hagan constar en ellas los datos exigidos, no se acompañen los documentos necesarios o estos revistan defectos formales, se procederá a requerir al/a la interesado/a, para que en el plazo de diez días hábiles, contados a partir del día siguiente a la fecha de recepción del requerimiento, subsane la falta o aporte los documentos que le sean requeridos, de conformidad con lo previsto en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. En el caso de que el/la solicitante no subsane la falta o no aporte los documentos en el plazo señalado, se entenderá que desiste de su petición, previa resolución de la Dirección de Uniqual, dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992.

Evaluación:

De acuerdo con el artículo 8 del Decreto 209/2006, de 17 de octubre, la evaluación de las solicitudes será realizada por Uniqual de acuerdo con el presente Protocolo.

El Comité de Evaluación, como órgano coordinador del proceso, realizará al comienzo de cada convocatoria una planificación general del proceso de evaluación. En ella, se indicarán los plazos de que disponen los Comités para realizar sus tareas de evaluación, a fin de asegurar que la Resolución de Uniqual pueda llegar a los/as interesados/as en el plazo máximo indicado en la convocatoria. Con carácter general, se procederá a la adscripción de las solicitudes presentadas al correspondiente Comité de Evaluación, en función del área de conocimiento y del campo señalado por el/la solicitante. No obstante, se podrá adscribir la solicitud a un campo diferente al indicado por el/la solicitante y por tanto a un Comité diferente, si se considera que los méritos alegados se adecuan mejor a dicho campo científico, y siempre que se justifique adecuadamente por parte de la Agencia dicha circunstancia.

Batzordeen Ebaluazioa: Uniqualen administrazio-zerbitzuek ebaluatzaileen esku jarriko dituzte, behar bezala antolatuta eta sailkatuta, ebaluazioa egiteko eskaerak, eta baita horien laburpen-zerrendatu bat ere. Batzorde bakoitzeko kideek banaka eta euren kabuz ebaluatuko dituzte espedienteak, aldez aurretik ezarritako egutegiko epeen barruan. Salbuespen gisa, Uniqualek espezialisten berariazko aholkularitza eskatu ahal izango du, gomendagarria bada. Banakako azterketa eta ebaluazioa egin ondoren, Batzorde bakoitzeko presidenteak kide guztien bilkura egiteko eguna eta ordua ezarriko ditu, Uniqualen egoitzan espedienteen ebaluazio bateratua egiteko. Bilera horren ondorioz, ebaluazio-eskaera bakoitzerako txosten bakarra egingo da, eta Ebaluazio Batzordeko presidenteak izenpetuko du. Bileraren ondoren, idazkariak ebaluazioan izandako gorabeherak eta Batzordeak egindako txosten guztiak biltzen dituen akta idatziko du. Batzordeen txostenek epai tekniko bat bilduko dute, eta negatiboa bada, justifikatu egin beharko da.

Ebazpena:

Ebaluazioaren ebazpena banakakoa izango da eskaera bakoitzerako, eta epai teknikoa, puntuazio xehatua eta tarte bakoitzaren ebaluazioa positiboa edo negatiboa den zehaztuko du.

Uniqualen zuzendariak banaka jakinaraziko die interesdunei deialdi bakoitzaren babesean eskatutako ebaluazioaren ebazpenaren edukia, erabakia hartzen den egunetik hasita 10 eguneko epean. Ebaluazioa jakinarazteko gehienezko epea ezingo da sei hilabetetik gorakoa izan, deialdian eskaerak aurkezteko aurreikusitako epea amaitzen denetik kontatzen hasita.

Errekurtsoa:

Uniqualen zuzendariaren ebazpenak, Agentziaren Estatutuen 15.5. eta 21.3. artikuluen arabera, administrazio-egintzatzat hartzen dira eta administrazio-bidea amaitzen dute. Horien aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegien aurrean, bi hilabeteko epean, jakinarazpena forman egiten denetik kontatzen hasita.

Berraztertze-errekurtsoaren kasuan, Ebaluazio Batzordeak berrikusiko du espediente osoa, eskatzailearen alegazioak aztertuko ditu eta horri buruzko txosten berria egingo du. Uniqualen zuzendariak, Batzordearen txostena ikusi ondoren, berraztertze-errekurtsoa ebatziko du eta interesdunari jakinaraziko dio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 117.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Evaluación por los Comités: los servicios administrativos de Uniqual pondrán a disposición de cada evaluador/a, oportunamente ordenadas y clasificadas, las solicitudes objeto de evaluación, así como un listado resumen de las mismas. Los miembros de cada Comité realizarán la evaluación de los expedientes de forma individual e independiente, dentro de las fechas señaladas en el calendario previamente establecido. Excepcionalmente, Uniqual podrá requerir el asesoramiento específico de especialistas cuando resulte aconsejable. Una vez llevado a cabo el análisis y evaluación individual, el/la Presidente/a de cada Comité procederá a fijar día y hora para celebrar la sesión de todos los miembros, para la realización de la evaluación conjunta de los expedientes en la sede de Uniqual. Resultado de esta reunión será la emisión de un informe único para cada solicitud objeto de evaluación, que será firmado por el/la Presidente/a del Comité de Evaluación. De esta reunión se levantará por parte del/la Secretario/a un Acta, que contendrá las incidencias de la evaluación, junto a todos los informes emitidos por el Comité. Los informes de los Comités contendrán un juicio técnico debiendo ser motivados en el supuesto de ser desfavorables.

Resolución:

La Resolución de la evaluación será individualizada para cada solicitud, expresando el juicio técnico, remitiendo la puntuación detallada y especificando el carácter positivo o negativo respecto de cada tramo de la evaluación.

La Directora de Uniqual notificará individualmente a cada interesado/a, en un plazo de diez días desde que el acto ha sido dictado, el contenido de la Resolución por la que se resuelve la evaluación solicitada al amparo de cada convocatoria. El plazo máximo para la notificación de la evaluación no podrá ser superior a seis meses a contar desde la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes previsto en la convocatoria.

Recurso:

Las Resoluciones de la Directora de Uniqual de acuerdo con los artículos 15.5 y 21.3 de los Estatutos de la Agencia, tienen la consideración de actos administrativos, poniendo fin a la vía administrativa y contra los que cabe interponer con carácter potestativo recurso de reposición o bien interponer, directamente, un recurso contencioso-administrativo ante el correspondiente Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses desde su notificación en forma.

En caso de recurso de reposición, el expediente completo pasará a ser revisado por el Comité de Evaluación, que analizará las alegaciones del/la solicitante, y emitirá un nuevo informe al respecto. La Directora de Uniqual visto el informe del Comité, resolverá el recurso de reposición, que será notificado al/a la interesado/a de conformidad con lo dispuesto en el artículo 117.2 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.– Ebaluazio irizpideak.

Ebaluazio-irizpideak eta irizpide horien balizko aldaketak Uniqualen Administrazio Kontseiluaren erabaki bidez onartuko dira. Osagarriak aintzatetsi aurretik Uniqualek egin behar duen merituen ebaluazioa irizpideak aplikatzeko 209/2006 Dekretuko erregela hauen arabera egingo da:

Irizpideen aplikazio arauak.

Ebaluazio-sistema objektiboa, orekatua eta gardena bermatzeko xedearekin, gehienezko balioak ezarri dira irizpide bakoitzean, printzipio hauen arabera:

a) Ebaluazio positiboa edo aldeko txostena jasotzeko, eskatzaileak tarte eta maila bakoitzerako ezarritako baldintzak bete behar ditu, eta irizpide bakoitzean lortutako balioen batuketaren ondoriozko puntuazioak osagarri mota bakoitzerako behar den puntuazioa gainditu behar du.

b) Urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren 8.6 artikuluaren ondorioz, eskatzaileak bere bizitza akademiko osoko merituak adierazi ahal izango ditu lehen ebaluazioan. Ondorengo ebaluazioak aurreko ebaluazioaren eta dagokion deialdiko ebaluazio-eskaerak aurkezteko epea amaitu arteko denbora-tartean garatutako jarduerari buruzkoak izango dira. Pertsona bakoitzaren bigarren eta ondorengo ebaluazioetako C mailako osagarrien ebaluazioan, 209/2006 Dekretuaren eranskinean adierazitako baldintzak hartuko dira aintzat.

c) Uniqualek, Unibertsitateak igorritako ziurtagiri ofizialak ikusita, eskatzaileak adierazitako UPV/EHU-rekiko lotura-aldiak egiaztatuko ditu. UPV/EHUk egiaztatu behar dituen beste merituekin (doktoregoak, etab.) prozedura berari jarraituko zaio.

Gainera, aurreko ebaluazioetan lortutako puntuei formula honen arabera eutsiko zaie:

Esleitutako puntu berriak = A *(T / T+1) + P

Non:

A = Aurreko ebaluazioan lortutako puntu kopurua.

T = Unera arte ebaluatutako bost urteko aldien kopurua.

P = Azken 5 urteetako ebaluazioan lortutako puntu kopurua.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 15a.

UNIQUALeko zuzendaria,
ANA FERNÁNDEZ SAINZ.

5.– Criterios de Evaluación.

Los criterios de evaluación y sus posibles modificaciones deberán aprobarse por Acuerdo del Consejo de Administración de Uniqual. La evaluación de los méritos que ha de realizar Uniqual previa al reconocimiento de los complementos, se realizará conforme a las siguientes reglas de aplicación de los criterios del Decreto 209/2006.

Reglas de aplicación de los criterios.

Con objeto de garantizar un sistema de evaluación objetivo, equilibrado y transparente se han establecido unos valores máximos en cada criterio, de acuerdo con los siguientes principios:

a) La evaluación positiva o informe favorable requiere que el/la solicitante alcance los requisitos establecidos para cada tramo o nivel y que la puntuación obtenida como suma de los valores alcanzados en cada criterio supere la puntuación necesaria para cada tipo de complemento.

b) En virtud del artículo 8.6, del Decreto 209/2006, de 17 de octubre, en la primera evaluación el/la solicitante podrá alegar los méritos de toda su vida académica. Las siguientes evaluaciones se realizarán sobre la actividad desarrollada en el período de tiempo comprendido entre la evaluación anterior y la fecha de expiración del plazo de presentación de solicitudes de evaluación de la correspondiente convocatoria. En la evaluación de los complementos del nivel C, de segundas y posteriores evaluaciones de cada persona se considerarán las condiciones señaladas en el anexo del Decreto 209/2006.

c) Uniqual verificará los periodos de vinculación a la UPV/EHU alegados por el/la solicitante a la vista de las certificaciones oficiales remitidas por la Universidad. Se seguirá idéntico procedimiento con respecto a otros méritos que deba acreditar la UPV/EHU (doctorados, etc.).

Además, los puntos obtenidos en evaluaciones anteriores se mantendrán de acuerdo a la siguiente fórmula:

Nueva asignación de puntos = A *(T / T+1) + P

Donde:

A = N.º de puntos obtenidos en la evaluación anterior.

T = N.º de periodos de 5 años evaluados hasta la fecha.

P = N.º de puntos obtenidos en la evaluación de los últimos 5 años.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de diciembre de 2008.

La Directora de UNIQUAL,
ANA FERNÁNDEZ SAINZ.

# I. ERANSKINA

## TARTE ETA MAILEN ARABERAKO BALIOESPENA

C maila: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateari eskainitako lanbide jarduna aintzatesteko osagarri gehigarria.

Unibertsitateari eskainitako lanbide-jarduna aintzatesteko osagarri gehigarriaren maila, pertsona bakoitzaren lehenengo ebaluazioan, bereizitako bi tartetan antolatuko da, lehen xedapen iragankorrari jarraiki:

C1. Betekizunak: UPV/EHUrekiko 3 urteko lotura, irakaskuntza-jardueraren aurkako txostenik ez egotea (ez-betetze formalik, edo tutoretzei, irakaskuntzari, akten epeei eta abarrei buruzkorik ez egotea) eta irakaskuntzari buruzko inkestak sistematikoki betetzea, horietan errepikatutako balioespen negatiborik izan gabe.

C2. Betekizunak: UPV/EHUrekiko 7 urteko lotura, irakaskuntza-jardueraren aurkako txostenik ez egotea (ez-betetze formalik, edo tutoretzei, irakaskuntzari, akten epeei eta abarrei buruzkorik ez egotea) eta irakaskuntzari buruzko inkestak sistematikoki betetzea, horietan errepikatutako balioespen negatiborik izan gabe.

B maila: Kalitatearen aintzatespenari eta etengabeko hobekuntzara bideratutako osagarri gehigarria.

Oharra: B tarteko edozein mailatan behar den puntuazioa lortzeko (25, 50 eta 75 puntu), II. eranskineko balorazio-irizpideak hartuko dira kontuan. Antzinatasuna kalkulatzeko, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearekin izandako edozein lan-, estatutu- edo administrazio-loturaren mendean izandako irakaskuntza-, ikerketa- eta kudeaketa-jarduera guztiak izango dira kontuan (209/2006 Dekretuaren 5.6 artikulua).

B1. Betekizunak: C1, 5 urteko harremana Unibertsitatearekin eta 25 puntu lortzea.

Puntu horiek lortzeko, irakaskuntza-, ikerketa- eta kudeaketa-aldi bat identifikatu behar da eta balorazio-irizpideen atalaren arabera balioetsi. Aldeko beste ebaluazioak ere kontuan hartuko dira, ebaluazio horien irizpideak ordainsari gehigarrien dekretuaren eranskinean adierazitako irizpideekin funtsean bat datozenean.

B2. Betekizunak: Doktoregoa, C1, C2, 10 urteko harremana Unibertsitatearekin eta 50 puntu lortzea.

Puntu horiek lortzeko, irakaskuntza-, ikerketa- eta kudeaketa-aldi bat identifikatu behar da eta balorazio-irizpideen atalaren arabera balioetsi. Aldeko beste ebaluazioak ere kontuan hartuko dira, ebaluazio horien irizpideak ordainsari gehigarrien dekretuaren eranskinean adierazitako irizpideekin funtsean bat datozenean.

B3. Betekizunak: Doktoregoa, C1, C2, 10 urteko harremana Unibertsitatearekin eta 75 puntu lortzea.

# ANEXO I

## VALORACIÓN POR TRAMOS Y NIVELES

Nivel C: Complemento adicional destinado al reconocimiento de la dedicación profesional a la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

El nivel de complemento adicional destinado al reconocimiento de la dedicación profesional a la Universidad, en la primera evaluación de cada persona, se articulará en dos tramos diferenciados de acuerdo a la disposición transitoria primera:

C1: Requisitos: 3 años de vinculación a la UPV/EHU, ausencia de informe negativo alguno sobre su docencia (inexistencia de incumplimientos formales, de tutorías, de docencia, plazos de actas, etc.) y cumplimiento sistemático de las encuestas de docencia con ausencia de valoración negativa reiterada en las mismas.

C2: Requisitos: 7 años de vinculación a la UPV/EHU, ausencia de informe negativo alguno sobre su docencia (inexistencia de incumplimientos formales, de tutorías, de docencia, plazos de actas, etc.) y cumplimiento sistemático de las encuestas de docencia con ausencia de valoración negativa reiterada en las mismas.

Nivel B: Complemento adicional destinado al reconocimiento de la calidad y la mejora continua.

Nota: para obtener la puntuación necesaria en cualquiera de los tres niveles del tramo B (25, 50 y 75 puntos), se considerarán los Criterios de valoración del anexo II. A los efectos del cómputo de la antigüedad, se tendrán en cuenta todas las actividades docentes, investigadoras o de gestión realizadas bajo cualquier vinculación laboral, estatutaria o administrativa con la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (artículo 5.6 del Decreto 209/2006).

